



GOBERNU BILERA

Prensa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilak 13

Vitoria-Gasteiz, 13 de abril de 2010

LEHENDAKARITZA

Erabakia, "2009-2013 IX. Legegintzaldiko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia" onartzen duena.

Erabakia, "Fundación Casa Vasca de Antioquia Euskoetxea Luis Miguel de Zulategi y Huarte" de Medellín, Estado de Antioquia (Colombia) aintzatesteari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen ondorioetarako.

HERRIZAINGO SAILA

Erabakia, Bizkarrezur-muineko Lesioa (AESLEME) Aztertzeko Elkarteari zuzeneko diru-laguntza ematekoa, trafiko-istripurik ez gertatzea helburutzat hartuta. Horretarako, "Gerta dakizuke / Te puede pasar" mugikortasun ziurrerako heziketa-kanpaina bideratuko da, AXA Seguros Generales aseguru-etxearen eskutik.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Agindua, ikerketa egintza berezietarako laguntzetarako deia egiten duena.

Dekretua, Turismo-ostatuak kudeatzeko goi-mailako teknikariaren tituluaren curriculuma ezartzen duena.

Agindua; honen bidez, diru-laguntzetarako deialdia egiten da, Leonardo da Vinci eta Erasmus azpiprogramak antolatu eta garatzeko Etengabeko Ikaskuntzako Programaren esparruan.

Agindua, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren zentro elkartuei zuzendutako laguntzen arauak eta 2010eko ekitaldian eskabideak egiteko deialdia onartzen dituen.

Erabakia, diru-laguntza zuzena emateko baimena emateko, Euskal Herriko Unibertsitateak egiten dituen ikerketei laguntzako doktoreak hartzeko.

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Erabakia, sektore estrategikoetako enpresei finantza-laguntza emateko berriazko programa berria onesten duena, 2010. urterako.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Erabakia, teknologia-oinarriko ETEak edota berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa 2010an finantzatzeko 5.000.000 eurotik gorako gasturako baimena ematekoa.

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako gastuak baimentzen duena lan-kontratua etetea dakarren enplegua erregulatzeko espediente batek (ERE) eragindako langileen etengabeko prestakuntzari laguntzeko deialdia dela eta.

Erabakia: 5.000.000 eurotik gorako gastua egiteko baimena ematekoa. Kontzeptua: proiektuen laguntza deialdiak finantzatzea Garapen-Lankidetzako eta Laguntzako 2010. ekitaldiko Fondoaren kargura.

KULTURA SAILA

Erabakia, La Platako (Argentina) Unibertsitatearekin lankidetzaz hitzarmena sinatzeko, unibertsitate horretan euskal hizkuntza eta kulturaren ezagutza sustatzeko.

Erabakia: baimentzen du Txileko Unibertsitatearekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, unibertsitate horretan sustatzeko euskal hizkuntza eta kultura ezagutzea.

Erabakia, Txileko Pontificia Universidad Católicarekin lankidetzaz hitzarmena sinatzen duena, unibertsitate horretan euskal hizkuntza eta kulturaren ezagutza sustatzeko.

Lehendakaritza

2009-2013 EGITASMO ETA JARDUERA ESANGURATSUEN EGUTEGIA ONARTU DA

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du “2009-2013 IX. legegintzaldiko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia”. Gobernuaren jarduna planifikatzeko dokumentuak izan, koordinazioko lantresna bat dira, bi asmo dituztenak: alde batetik, gobernuaren jardueraren multzoa ordenatzea eta programatzea, disfuntzioak eta gainjartzeak saihesteko; eta bestetik, gobernuaren jardunak ebaluatzeko bide bat egituratzea, hainbat neurri zuzentzaile eta berritzaile eranstea ahalbidetzeko.

Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia prestatzea, beraz, gobernuaren jarduna planifikatzeko prozesuari dagokio, eta bi alditan jorratu da: Legegintza Egutegiaren egituraketa (egutegi hori iazko azaroaren 17ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onartu zen) eta Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegiaren prestaketa.

Egutegiaren bitartez, lehenik eta behin, Gobernuaren jarduna koordinatzeko bide bat edukiko da eskura, erabilgarri dauden bitarteko eta baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren multzoan integratzeko; eta bigarrenik, arloarekin zerikusia duten gainerako administrazio publikoen lanarekin erkatzeko aukera izango da. Horrekin guztiarekin, hartzen diren neurrien segimendu eta ebaluazio eraginkorrari ekiteko neurriak hartu ahal izango dira.

Lehendakaritza

**MEDELLINEKO “FUNDACIÓN CASA VASCA DE ANTIOQUIA
EUSKOETXEA LUIS MIGUEL DE ZULATEGUI Y HUARTE” EUSKAL ETXE
BERRIA**

Euko Jaurlaritzak onartu egin du Medellineko (Colombia) “Fundación Casa Vasca de Antioquia Euskoetxea Luis Miguel de Zulategui y Huarte” euskal etxe berri moduan. 2009an eratu zen erakunde hau 16 bazkiderekin eta onarpen honi esker Colombiako bigarren euskal ereakundea izango da aurrerantzean.

Herrizaingo Saila

TRAFIKOK, AESLEMEK ETA AXAK ISTRIPUAK PREBENITZEKO KANPAINA BAT ABIATUKO DUTE EUSKADIN, 15 MILA GAZTERENGANA HELDUKO DENA

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur, asteartea, egindako bileran baimena eman dio Herrizaingo Sailari AESLEME elkartearekin eta AXA aseguru-etxearekin lankidetzeta-hitzarmen bat ezartzeko. Hitzarmenaren baitan, istripuak prebenitzeko kanpaina bat abian jarriko dute, 15 mila gazte ingururengana helduko dena.

Ekimenaren helburua da EAEko Bigarren Hezkuntzako ikasleei bide segurtasunaz informatzea eta sentibilizatzea, "Gerta dakizuke-Te puede pasar" kanpainaren bidez. Trafiko Zuzendaritzak hamar urte daramatza programa hau bultzatzen AESLEMErekin batera, eta orain, AXArekin ere. Hitzarmenari esker, AESLEMEk (Bizkarrezur Muineko Lesioaren Ikerketarako Elkarte) istripuen ondorioz bizkarrezur muinean lesioak dituzten pertsona batzuek eta baita zenbait osasun-profesionalek ere osatuko dituzten hezitzaile-taldeak antolatutako ditu. Talde horiek hitzaldiak emango dizkiete EAEko DBH, Batxilergo eta LHko zenbait ikasle-talderi.

Berrikuntza gisa, hitzarmenaren baitan "Road Show" izenekoaren hiru saio egingo dira. Bereziki gazteei zuzenduta dagoen antzezpen hezigarria da "Road Show". Antzezlan horretan, trafiko istripu baten benetako protagonistak (polizia, suhiltzailea, medikua, zauritua...) errepidearen arriskuei buruzko kontzientziazioa indartzen saiatzen dira, euren lekukotasunaren eraginaz baliatuta.

Kanpainak 49.000 euro kostatuko du, eta Herrizaingo Sailak eta AXAk ordainduko dute elkarrekin.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

IKERKETA EGINTZA BEREZIETARAKO LAGUNTZAK

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Agindu bat onartu du ikerketa egintza berezietarako laguntzetarako deia egiten duena.

120.000 euroko diru-kopuru osoa duen deialdi honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko ikerketa eta ikerketa aplikatuaren kalitate zientifiko-teknikoa hobetzea da, eta EAEko giza baliabideen parte-hartzea, lehiakortasuna eta gaitasuna gehitzea.

Era berean, deialdi honek beste laguntza batzuk ere izango ditu kontuan: Europako Batasuneko I+G programa markoko berariazko programen barruan onartutako proiektu europarrak aurkezteko laguntzak edo, salbuespen gisa, nazioarteko programek neurri batean finantzatutako proiektuetarako laguntza osagarriak ere bai.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

TURISMO OSTATUAK KUDEATZEKO GOI TEKNIKARIA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Turismo Ostatuak Kudeatzeko goi teknikariaren tituluaren curriculum-a zehazten duen dekretua.

Dekretu horren bidez Turismo Ostatuak Kudeatzeko goi teknikariaren tituluari, Ostelaritza eta Turismo lanbide-arloan, dagozkion goi mailako Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculum-a zehazten da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ikastetxeak, pedagogian eta antolaketan duen autonomiaren barruan, du ikastetxearen curriculum-proiektua zehaztearen ardura. Proiektu horretan behar diren erabakiak hartuko ditu ikastetxeak, irakaskuntzan egin beharreko lanari begira haren ezaugarriak eta identitatea konkretatzeko, baita modulu profesionalen programazioak egiteko irizpideak finkatzeko ere.

Ikastetxearen curriculum-proiektuaren barruan, irakasle-taldeak, zikloko arduradunek eta irakasle bakoitzak egin beharko dituzte programazioak, ezartzen diren helburu orokorrak kontuan hartuz, lanbide-modulu bakoitzak dituen ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatuz eta, oso inportantea dena, irakaskuntzen erreferentzia den perfil profesionala euskarri gisa erabiliz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

972.258 EURO LEONARDO DA VINCI ETA LEONARDO DA VINCI ETENGABEKO IKASKUNTZAREN PROGRAMARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, Leonardo da Vinci eta Erasmus Lanbide Heziketako azpiprogramak Etengabeko Ikaskuntzaren programa esparruan, proiektuak antolatu eta garatzeko dirulaguntzak deitzen dituen agindu bat.

Dirulaguntzen deialdi honek, 972.258 euroko zenbateko globalean, Etengabeko Ikaskuntzaren programa europarren barruan onartutako proiektuak Europako Erkidegoarekin batera finantzatzea du helburu, Leonardo da Vinci eta Erasmus azpiprogramei dagozkien gaietan eta Hirugarren Mailako Lanbide Heziketari (Goi Mailako Heziketa Zikloak) eta unibertsitate-ikasketei dagozkien gaietan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

URRUTIKO HEZKUNTZARAKO UNIBERTSITATE NAZIONALAREN IKASTETXE ELKARTUENTZAKO LAGUNTZAK

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bilkuranbat agindu onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Ikastetxe Elkartuentzako laguntzetarako deia egin eta arau erregulatzailleak onartzen duena.

Deialdi honek 569.583 euroko diru kopurua du eta Bergaran, Portugaleten eta Vitoria-Gasteizen egoitza duten UHUNeko Ikastetxe Elkartuen 2010. urteko gastuen ohizko aurrekontua finantzatzen laguntzeko helburua du.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

2 MILIOI EURO IKERKETA SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran hartu du Euskal Herriko Unibertsitateari dirulaguntza zuzen bat, 2.000.000 euroko zenbatekoan, ematea baimentzeko erabakia, ikerketari laguntzeko doktoreak sartzeko.

Ekonomia eta Ogasun Saila

SEKTORE ESTRATEGIKOETAKO ENPRESEI FINANTZA-LAGUNTZA EMATEKO BERARIAZKO PROGRAMA

- **Sektore estrategikoetako enpresei laguntzeko programa onetsi da, 100 milioi euroko zenbatekoa duela.**
- **Programa horrek lehentasuna emango die enplegua sortu eta mantentzeari**

Gobernu Kontseiluak erabaki du sektore estrategikoetako enpresentzako berme-lerroa 2010. urterako eguneratuko duen beste programa bat ezarriko dela. Laguntza-programa horren helburua izango da bankuaren finantzaketa lortu ahal izatea zirkulatzailaren beharrak estaltzeko, epe laburrerako zorra berritzeko eta epe laburrerako zorra epe ertain eta luzerako zorrera egokitu ahal izateko, gehienez 100.000.000 euroko zenbatekoarekin.

Berariazko laguntza-programa horrekin finantzaketa erraztu nahi zaie duten enplegu-bolumenaren (250 langile baino gehiago) edo jardueraren ondorioz duela gutxi onetsi den ETEentzako finantza-laguntzaren programari heldu ezin dioten sektore estrategikoetako enpresei.

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte berme-lerro hori eskura ditzaketan enpresek:

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea eta jarduera nagusia bertan garatzea.
- Mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak ez izatea.
- Zuzenean edo zeharka beste enpresa baten edo batera beste enpresa batzuen %25etik gorako partaidetza duenean, enpresa horiek egoitza EAEn izatea eta jarduera nagusia bertan garatzea.

Programa horrek lehentasuna emango die proiektu kaudimendun eta bideragarrien finantzaketari, enpresaren zeharkako jarduera edo bere hornitzaile katea mantentzeari, balio erantsi gehiago sortzeari eta, batez ere, enplegua sortu eta mantentzeari.

Nolanahi ere, erabaki honetan azaldutako bermeetan eta finantzaketa-lerroan parte hartzearen ondorioz, onuradunak enplegua mantentzeko konpromiso formala hartu beharko du.

Honako hauek izango dira maileguen ezaugarriak:

a) Abalatutako eragiketa bakoitzeko gutxieneko zenbatekoa 600.000 eurokoa izango da.

b) Abalatutako onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 1.500.000 €-koa izango da. Elkartea osatzen duten enpresen kasuan, elkarre horretako enpresa guztientzako gehieneko zenbatekoa ezin izango da 4.500.000 € baino gehiagokoa izan.

Berariazko programa hori prestatzeko, Ekonomia eta Ogasun Sailak bidezko lankidetzak-hitzarmenak sinatuko ditu elkarrekiko berme-baltzuekin eta finantza-erakundeekin.

2009ko deialdian emandako abalen guztizko zenbatekoa 59.600.000 eurokoa izan zen, 47 eragiketatan banatuta.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

JAURLARITZAK 26 MILIOI BIDERATU DITU AURTEN GAUZATU INDUSTRIA PROGRAMARAKO, ETE BERRITZAILEENTZAT ETA TEKNOLOGIA OINARRIA DUTENENTZAT

Jaurlaritzaren Kontseiluak 26 milioi euroko finantzazioa onartu du gaur 2010. urte honetako Gauzatu Industria programarako, teknologia-oinarriko ETEak eta/edo berritzailak sortu eta garatzen laguntzeko programarako, alegia. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak aplikatzen ditu laguntza horiek; laguntza horien bidez, aurrerakin itzulgarriak ematen dira gutxienez 120.000 euroko inbertsioa egiten duten proiektuetarako, betiere gutxienez hiru enplegu sortzen badituzte 36 hilabeteko epean.

Jaurlaritzaren laguntza ETEek egindako inbertsioarekiko proportzionala da, eta inbertsio lagungarriaren % 35erainokoa izan daiteke, betiere honako muga hauekin: sortutako enplegu bakoitzeko 120.000 euro, eta gehienez ere, 1,5 milioi euro. Aurrerakinak bost urteko epean itzuli beharko dira, honako modu honetan: bosten bat urte bakoitzean, bi zati berdinetan, bi alditan (otsailean eta uztailean). Proiektuaren inbertsioa amaitzen denean hasi beharko da itzulketak egiten, eta urtebeteko gabealdiaren ostean, segidako bost urtetan.

Honako enpresa txiki eta ertain hauek jaso dezakete laguntza: erauzketako industria-enpresek, eraldaketa eta produkziokoek, aurrekoei loturiko zerbitzu teknikoetakoek (denak ere produktu-prozesuari lotuak), eta informazioaren eta komunikazioaren gizartearen arlokoek. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarekoak diren teknologia-ikerketako erakundeak ezin dira laguntzen onuradun izan.

Gauzatu Industria programa Eusko Jaurlaritzak krisialdi honetarako finkatutako industria-politikaren barruan txertatzen da. Politika hori ekintza jakin batzuetan oinarritzen da; hain zuzen ere, enpresen lehiakortasuna hobetzea eta iraunkortasuna xede dituzten ekintzetan. Helburu horiek 2010-2013 aldirako Lehiakortasun Plan berrian bilduko dira. Plan horretako jardunen artean, Gauzatu Industria programari eutsi egingo zaio, helburu nagusiak betetzeko oinarritzko tresna den aldetik.

60 proiektu eta 900 enplegu inguru

Aurreikuspenen arabera, teknologia-oinarriko proiektuei eta berritzaileei dagokienez, Gauzatu Industria programaren bidez 60 proiektu lagunduko dira 2010. urtean, 175 milioi euroko eragindako inbertsioa eginez eta 900 lanpostu sortuz.

2000. urtean programa abiarazi zenetik, 747 proiektu lagundu dira, 1.419 milioi euroko uneko inbertsioa egin da eta 9.768 lanpostu sortu dira. Aurrerakinak, guztira, 293,87 milioi euro izan dira.

Eskaerak aurkezteko epea EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta horretarako kreditua lehenago agortzen ez bada, 2010eko maiatzaren 31n amaituko da.

Lan eta Gizarte Gaietako Saila

5,3 MILIOI EURO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ONDORIOZ KONTRATUA ETETEN ZAIEN LANGILEENTZAT

Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, enplegu erregulazioko espedienteren (EEE) baten ondorioz lan-kontratua eten zaien langileentzako laguntzen 2010. urteko deialdia onartu du Jaurlaritzaren Kontseiluak. Helburu horrekin 5.293.723 euro erabiliko dira.

Laguntzen xedea enpresek aurkeztutako prestakuntza-planak finantzatzea da (kooperatibak ere sartzen dira, ekonomia-, teknika-, antolaketa- eta ekoizpen-arrazoiengatik edo ezinbesteko kasuagatik bazkide langileak edo lan-bazkideak aldi baterako langabezian baldin badituzte); horrez gain, lanbide-kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-plan horietan parte hartzen duten langileentzako banakako laguntzak ere eskaintzen dira. Egoera jakinetan, Hobetuzek kudeatzen duen ohiko deialdian onartutako prestakuntza-planetako ekintzetan parte hartzen duten langileek ere eskuratu ahal izango dituzte laguntzak.

Diru-laguntzak eskatzeko 2009. urtean egindako lehenengo bi deialdien ondoren, ahalik eta denbora-tarte laburrena utzi nahi da azken deialdiaren eta 2010. urtekoaren artean; horrela, krisi ekonomikoak eta, horren ondorioz, izapidetutako espedienteen kopuru handiak irauten duten bitartean, kaltetutako enpresek eta langileek laguntza-aukera hau etenik gabe baliatu ahal izan dezaten.

Kontratua eteteko enplegu-erregulazioko espedienteren batean dauden langileek prestakuntzarako jasotzen duten diru-pizgarria errefortzuko tresna da programaren eraginkortasuna bermatzeko, kontratua eteteko EEE baten ondoren enpresak eta langileek kontratu-amaierako EEERA eta lan-harremanen amaierara jo behar izan ez dezaten; izan ere, langileen prestakuntza hobetzen baita, enpresen lehiakortasunarekin batera. Horren ildotik, laguntzek prebentzio-izaera nabarmena dute.

Lan eta Gizarte Gaietako Saila

40 MILIOI EURO GARAPEN LANKIDETZARAKO LAGUNTZETAN

Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, garapenerako lankidetzaren aldeko hiru laguntza-lerro onartu ditu gaur gobernuak, Garapenean Lankide Izateko 2010. urteko Funtsaren kargura.

Horietatik, lehenengoa **euskal lankideei** dago zuzenduta, eta 400.000 euroko aurrekontua du. Horretara aurkeztu ahal izango dira, beste zenbait baldintza betetzeaz gain, EAEn egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra duten garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak.

Diru-laguntza lortu ahal izateko, eskatzaileek xehetasunez deskribatu beharko dute lankide horren parte hartzearekin garatu nahi duten jarduera, tokiko erakundearen ezaugarriak, aurreikusitako emaitzak, lan profesionala betearazteko gutxi gorabeherako egutegia eta aurreikusten diren gastuen xehetasuna zehaztuz.

Diru-laguntza jasoko duten proiektuen hautaketa lehiaketa bidez egingo da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabeteko gehienezko epean.

Bigarren Agindua **programetarako laguntzen** deialdiari buruzkoa da, eta 8.400.000 euroko diru-hornidura du.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, aurkeztutako programek bat etorri beharko dute, argi eta garbi, euskal erakunde eskatzailearen helburu estrategikoren batekin, eta gutxienez tokiko erakunde baten bitartez garatu beharko dira lurralde pobretuetan.

Programa bakoitzeko gehienez 1,2 milioi euroko diru-laguntza eskatu ahal izango da, eta, gutxienez, 600.000 eurokoa.

Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluak **proiektuetarako laguntzen** deialdia onartu du, Garapenean Lankide Izateko 2010. urterako Funtsaren kargura. Kapitulu horrek 30.855.042 euroko hornidura du, eta erakunde eta erakundeen partzuergoei zuzenduta dago.

Proiektuak hegoaldeko herrialde pobretuetako tokiko erakunde baten bitartez gauzatu beharko dira, salbu eta herri pobretuetako jendeari zuzendutako prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuen kasuan, baldin eta proiektu horiek osorik Euskadin egiten badira.

Proiektu bakoitzeko ezin izango da 600.000 euro baino laguntza handiagoa eskatu.

Kultura Saila

UNIBERTSITATEEKIKO HITZARMENAK EUSKAL HIZKUNTZA ETA KULTURA EZAGUTZERA EMATEKO

Eusko Jaurlaritzak gaurko saioan hainbat unibertsitateekin hitzarmenak sinatzea onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta unibertsitatearen arteko lankidetzaz bultzatzeko eta horrela euskal hizkuntza eta kultura bere eremuaz haratago ezagutarazteko, beste herrialde batzuek gure kulturako alderdi esanguratsuen ezagutza handitu eta horretan sakondu ahal izan dezaten.

Hitzarmen horien bitartez, erakundeek unibertsitate bakoitzean Euskara eta euskal kulturako lektoretza bultzatzeko konpromisoa hartzen dute. Diziplina horren irakaskuntzaz arduratuko da, baita hura ezagutaraztea helburu duten hedatzeko eta sustatzeko jarduerak antolatzeaz ere.

Unibertsitateak eta laguntzak honakoak dira:

- La Platako Unibertsitatea (Argentina): 18.000 euro
- Txileko Unibertsitatea: 4.224 euro
- Txileko Pontificia Universidad Católica: 10.872 euro